



GOBERNU BATZARRA

2024.02.05

- Alkatea:**
Angel Martinez de Rituerto Arregi
- Bertaratutako zinegotziak:**
Kristina Pelaez Errazkin
Ander Figuerido Zubiria
Aitor Agirresarobe Murgi
- Ez dira bertaratu:**
Estitxu Kortejarena Ugarte
Goiuri Ezeiza Arandia
- Idazkaria:**
Begoña Garmendia Vazquez
- Kontu-hartzaile akzidentala:**
Paulino Alonso Eraso
- Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko otsailaren bostean, 12:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ezohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:
1. Akta hau onartzea: 2024ko urtarrilaren 29koa
 2. Onartzea, aurrekarietan adierazitakoaren arabera, GUREAK BERDEA, S.L.U. enpresari zehapenak aplikatzeko espedienteari hasiera emtea, Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak eta hobekuntzak egiteko zerbitzukuratuan enpresa kontratistak Udalaren onespina jaso gabe langileak ordezkatu eta horien kualifikazioa beheruntz aldatzeagatik.
 3. Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze eta hobekuntza jasangarriko lanak egiteko zerbitzu-kontratuaren esleipenaren kontratazio espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.
 4. Dekretu hauen berri ematea:
2024/130 Dekretua: 2023/69 faktura zerrenda.
2024/133 Dekretua: 2023/70 faktura zerrenda.



1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO URTARRILAREN 29KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA, AURREKARIETAN ADIERAZITAKOAREN ARABERA, GUREAK BERDEA, S.L.U. ENPRESARI ZEHAPENAK APLIKATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMTEA, TOLOSAKO PARKE, LORATEGI, BERDEGUNE ETA KALEKO ZUHAITZEN MANTENTZE-LANAK ETA HOBEKUNTZAK EGITEKO ZERBITZUKONTRATUAN ENPRESA KONTRATISTAK UDALAREN ONESPENA JASO GABE LANGILEAK ORDEZKATU ETA HORIEN KUALIFIKAZIOA BEHERUNTZ ALDATZEAGATIK.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak eta hobekuntzak egiteko zerbitzua, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat erreserbatua (SPKL 4. xedapen gehigarria).
Unitate sustatzailea	Hirigintza Saila
Espedientea	2022SABI0001

II- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Hirigintza Saileko teknikariak 2022ko apirilaren 27an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2022ko urtarrilaren 25ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S17 40898-2022-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretizko iragarkia.

Bigarrena.- Behin lizitazio guztia legearen arabera eginda, 2022ko uztailaren 5ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, bestek beste, GUREAK BERDEA, S.L.U. (B20502613) enpresari adjudikatu zitzaion erreferentzian aipatutako kontratua, prezio honetan: nagusia 538.578,92 euro eta BEZa 113.101,57 euro; guztira, 651.680,49 euro.



Hirugarrena.- 2022ko abuztuaren 1ean formalizatu zen zegokion kontratua.

Laugarrena.- 2023ko maiatzaren 19an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, besteak beste, onartu zen erreferentzian aipatutako kontratuaren luzapena egitea 2023ko abuztuaren 1etik 2024ko uztailaren 31 arte. Horrela, **2024ko uztailaren 31n bukatzen da kontratua.**

Bosgarrena.- Hamaiera data aintzat hartuta, bai Hirigintza Sailak, baita Kontratazio Unitateak ere lizitazio berria prestatzen hasi ziren 2024ko urtarrilean; horrela, GUREAK BERDEA, S.L.U. (B20502613) enpresari errekeritu zitzaion SPKLren 130. artikuluan xedatutakoaren arabera, subrogagarria izan zitekeen langileen zerrenda beteta bidali zezaten Udalera.

Seigarrena.-

Horrela, 2024ko urtarrilaren 22an posta elektronikoz bidali zuen GUREAK BERDEA, S.L.U. (B20502613) enpresako ordezkariak errekeritutako taula (alboan txertatuta). Horretan, 12 langile, 3 ofizial, 2 arduradun eta teknikari 1 azaltzen dira; guztira, 18 langile.

Subrogazioak ukitutako langileen kontratuetako baldintzei buruzko informazioa, SPKL-ren 130. artikuluan aurreikusitako betetzeko.

Información sobre las condiciones de los contratos de los trabajadores a los que afecte la subrogación en cumplimiento de lo previsto en el artículo 130 LCSP.

Aplikagarria den lan-hitzamena / Convenio colectivo aplicable:
 Convenio: GUREAK BERDEA S.L.U. (2022-2027) / (Código 20001782011995)
 2023ko maiatzak 16an GAO argitaratua / publicado el 16 de mayo del 2023 en BOG ..

Trabajador (Iniciales)	Categoría	Tipo de contrato	Jornada laboral	Fecha antigüedad	Vencimiento del contrato	Salario bruto anual	Otros pactos
FJ.G.P	OPERARIO B1	100	100	06/02/1990		22.731,39	
JM.O.C.	OPERARIO C1	100	100	04/06/1997		18.545,26	
JP. V.G.	OPERARIO B2	100	100	01/07/1992		18.908,37	
JM.R.A.	OPERARIO B1	100	100	07/10/1996		20.636,34	
J.A.A.	OPERARIO B1	100	100	19/05/1999		22.243,14	
JM.A.A.	JEFE TÉCNICO/A	100	50	01/12/2015		23.634,52	
M.G.G.	OPERARIO A1	109	100	16/11/2008		24.487,17	
F.C.S.	OPERARIO A2	109	100	01/12/2015		22.616,37	
A.L.L.	OFICIAL 1ª	109	100	01/05/2017		27.300,66	
R.A.D.	OPERARIO B2	109	100	01/01/2019		19.951,19	
E.A.U.	OFICIAL 2ª	109	100	14/04/2021		25.480,12	
JM.E.M.	OFICIAL 2ª	109	100	03/08/2021		25.803,40	
N.A.M.	ENCARGADO	100	100	10/01/2023		33.349,52	
J.S.G.	OPERARIO C1	109	100	29/08/2023		17.194,85	
J.M.G.	OPERARIO C1	410	100	01/12/2023		17.380,21	
MA.P.S.	OPERARIO C1	430	100	21/08/2023	20/08/2024	17.194,85	
JJ.C.P.	ENCARGADO	540	25	06/10/2021	05/06/2025	9.110,47	
MA.O.P.	OPERARIO A2	540	25	06/07/2023	05/09/2026	5.822,72	

Hurrengo urteetarako hitzamenaren itundutako soldata-igoera 2024-2027/Subida salarial pactada en convenio para los próximos años 2024-2027
 EAko aurreko urteko KPI + 1,45 % / IPC de la C.A.P.V + 1,45 %
 Lanaldia murriztea 1592.50 orduira inisi arte / Reduccion de jornada laboral hasta llegar a 1592.50 horas

FECHA Y FIRMA DE LA EMPRESA:

Zazpigarrena.-

2021. urte amaieran, xede bera zuen 2022SABI0001 espedientea martxan jarri ahal izateko, taula bera helarazi zitzaion GUREAK BERDEA, S.L.U. (B20502613) enpresari eta horrek, alboan agertzen den taula igorri zuen Udalera. Bertan ikusten da, guztira, 16 langile subrogagarri zeudela

Aplikagarria den lan-hitzamena / Convenio colectivo aplicable:

Gureak BERDEA, S.L.U. ren hitzamen propioa, Gipuzkoako aldirikari ofizialeen argitaratua 2019ko ekainaren 24an, astelehenean Gureak Berdea, S.L.U. (kodea: 20001782011995)
 Convenio propio de GUREAK BERDEA, S.L.U. publicado en el boletín oficial de Gipuzkoa el lunes, a 24 de junio de 2019.
 Gureak Berdea, S.L.U. (código 20001782011995)

Langilea (inizialak) / Trabajador (iniciales)	Categoría/Kategoría	Kontratu mota / Tipo de contrato	Lanaldia / Jornada laboral	Antzintetasun-data / Fecha antigüedad	Kontratuaren epe-muga / Vencimiento del contrato	Urteko soldata gordina / Salario bruto anual	Urteko garrailo-plusa / Plusa transp. anual
JM.A.A	TÉCNICO	INDEFINIDO	50%	13/07/1996		21.288,12	0
J.J.C.P	ENCARGADOS/AS	INDEFINIDO	25%	06/11/1995		8.087,56	154,56
N.A.M	ENCARGADOS/AS	PARA LA FORMACIÓN	100%	10/01/2023	9/01/2023	27.543,88	618,24
A.L.L.	OFICIAL/A 1ª JARD-COND	INDEFINIDO	100%	04/12/2015		23.984,38	169,44
J.M.E.M	OFICIAL/A 2ª JARD-COND	INDEFINIDO	100%	04/01/2017		21.340,34	618,24
E.A.U	OFICIAL/A 2ª JARD-COND	INDEFINIDO	100%	25/11/2017		21.296,24	169,44
M.G.G	OPERARIO A1	INDEFINIDO	100%	22/06/2005		20.961,64	169,44
F.J.M.M	OPERARIO A2	INDEFINIDO	100%	01/04/1982		20.197,80	618,24
M.A.O.P	OPERARIO A2	INDEFINIDO	100%	03/08/1990		20.197,80	169,44



plantillan.

Horrela, taula hori argitaratu zen administrazio baldintza partikularren pleguan (ABPP) VIII. eranskin gisa.

Langilea (inizialak) /Trabajador (iniciales)	Categoria/Kategoria	Kontratu mota / Tipo de contrato	Lanaldia / jornada laboral	Antzinatea / Fecha antigüedad	Kontratuaren epe-muga / Vencimiento del contrato	Urteko soldata gordina / Salario bruto anual	Urteko garrasio-plusa / Plus transporte anual
F.J.G.P	OPERARIO B1	INDEFINIDO	100%	03/04/1989		19.101,74	618,24
J.M.R.A	OPERARIO B1	INDEFINIDO	100%	07/10/1996		19.101,74	169,44
J.A.A	OPERARIO B1	INDEFINIDO	100%	19/05/1999		19.101,74	169,44
F.C.S	OPERARIO B1	INDEFINIDO	100%	16/08/2014		18.504,64	169,44
R.A.D	OPERARIO B2	TEMPORAL	100%	20/04/2017		16.910,74	618,24
J.P.V.G	OPERARIO B2	INDEFINIDO	100%	01/07/1992		17.415,58	618,24
J.M.O.C	OPERARIO C1	INDEFINIDO	100%	03/06/1991		15.865,92	618,24

SOLDATAK 2021ekoak dira, hitzamen berria adostu gabe dago. // Salarios del 2021, no hay nuevo convenio.

GUREAK BERDEA S.L.U
2021eko ABENDUAK 31

Zortzigarrena.- Aurrekoaz gain, hau da **ABPP** I. ERANSKINAREN 12. PUNTUAN ZERZIGARRENA zena:

SPKLren 76.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta zerbitzuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan hartuta, kontratuari atxiki beharreko lantaldea, honako hauek osatuko dute gutxienez, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- *Teknikari bat jornada erdian, basogintzan, agronomoan, adar biologikoan, lorezainean edo paisaia-teknikari tituludunean, edo, halakorik ezean, gutxienez urtebeteko esperientzia edo kontserbazio-arloko eta parke eta lorategietako lanen arloko formakuntza duela egiaztatzen duena.*
- *Zerbitzuko arduradun bat lanaldi osoan, lan-taldeak kudeatuko dituen eta Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna duena. Zerbitzuak behar bezala koordinatzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren protokoloak garatu eta ezarriko ditu.*
- *Hiru ofizial-gidari, lanaldi osoan; behar bezala gaitutako langileak izango dira, indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera, eta zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren ibilgailuak gidatzeko baimena emango dien gidabaimena izan beharko dute.*
- *Langileak lanaldi osoan, behar bezala kualifikatutako langileak, indarreko legerian xedatutakoaren arabera, eta esleitutako zerbitzuak emateko adina langile, ahalik eta lanaldi osoena eskainiz. Funtzio nagusia preskripzio tekniko partikularren pleguan ezarritako zeregin guztiak betetzea izango da.*

Kontratuak irauten duen bitartean langileak aldatu edo gehitzeko, udal-zerbitzu teknikoaren alde aurreko onarpena beharko da.

VIII. eranskinean zerrendatutako langileak subrogatu nahi badira, berariaz adierazi beharko da hori. Langile horiek subrogatu nahi ez badira, lizitatzailerak aurkeztuko dituen langileen izenak eta titulazioa adierazi beharko dira.

Bederatzigarrena.-

GUREAK BERDEA, S.L.U. (B20502613) enpresak

Gurutze Zabala Iratorza andreak, helbidea Illarra Bidea, 4, 20018 Donostia eta 15258685W zenbakidun NAN agiria duenak, GUREAK Berdea, S.L.U., enpresaren ordezkari gisa, helbidea Illarra Bidea, 4, 20018 Donostia eta B20502613 zenbakidun IFK, lizitazioaren parte hartzeko, Tolosako Udalaren aurrean

ESKU6c5081a4-6a25-4ea5-8a76-a757e1dd47a0



proposamena aurkeztu zuenean, EKABrekin batera, jarraian txertatutako idatzia txertatu zuen. Bertan, argi geratzen da, enpresak konpromisoa hartzen zuela pleguetan eskatutako giza baliabideak kontratuari atxikitzea.

Hamargarrena.- Aurreko koadroak aldertzen badira, argi ikus daiteke, enpresa kontratistak langileak ordezkatu dituela Udalaren onespena jaso gabe eta langileen kualifikazioa mantendu gabe.

III.- ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Sektore Publikoko Kontratuaren Legea

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 192. artikuluan hau xedatzen du ez-betetze partziala edo betetze akastunari buruz:

Artículo 192. Incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso.

1. Los pliegos o el documento descriptivo podrán prever penalidades para el caso de cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del mismo o para el supuesto de incumplimiento de los compromisos o de las condiciones especiales de ejecución del contrato que se hubiesen establecido conforme al apartado 2 del artículo 76 y al apartado 1 del artículo 202. Estas penalidades deberán ser proporcionales a la gravedad del incumplimiento y las cuantías de cada una de ellas no podrán ser superiores al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido, ni el total de las mismas superar el 50 por cien del precio del contrato.

2. Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por su resolución o por la imposición de las penalidades que, para tales supuestos, se determinen en el pliego de cláusulas administrativas particulares o en el documento descriptivo.

3. Los pliegos reguladores de los acuerdos marco podrán prever las penalidades establecidas en el presente artículo en relación con las obligaciones derivadas del acuerdo marco y de los contratos en él basados.

Era berean ABPPko I. eranskineko 30. puntuak hau xedatzen du zehapenei buruz:

b) Partzialki ez betetzeagatik edo akatsekin betetzeagatik:

b.1) Akatsekin betetzeagatik: SPKLaren 192. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, kontratistak, berari egoz dakizkiokeen arrazoiak tarteko, partzialki bete ez baditu kontratuan definitutako prestazioak, zigor hauek ezarriko zaizkio: baldin eta akatsa konpon badaiteke, kontratuaren prezioaren —BEZa sartu gabe— ehuneko 2ko zigorra. Eta akatsa ezin bada konpondu, kontratuaren prezioaren —BEZik gabe— ehuneko 5eko zigorra.

b.2) Giza baliabide edo baliabide materialak bideratzeko konpromisoak ez



betetzeagatik: Ez dagokio, funtsezko kontratu-betebeharraren izaera duenez hau ez betetzeak kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.

b.3) Egikaritzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik: Ez dagokio, funtsezko kontratu-betebeharraren izaera duenez hau ez betetzeak kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.

Bestalde, kontratuaren lizitazioa arautzen duen administrazio-baldintza partikularren pleguko I. eranskineko 12. puntuak honako hau ezartzen du:

Kontratuak irauten duen bitartean langileak aldatu edo gehitzeko, udal-zerbitzu teknikoaren alde aurreko onarpena beharko da.

Beraz, argi geratzen dira hauek:

- Langileak aldatu ditu enpresa kontratistak.
- Langileen kualifikazioa beherantz aldatu da.
- Kontratazio organoak (udal zerbitzu teknikoak) ez du aldaketa onartu.

2.- Zehapen-prozedura

Indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuaren Legeak aurreikusten du administrazio kontratatzaileak, kontratistak kontratuaren baldintzak betetzen ez baditu, kontratua suntsiaraz dezakeela edo zigorrak ezar ditzakeela. Horretarako, zigorrak, oro har, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean ezarri ahal izango dira: kontratuaren xede den prestazioa oker betetzea edo konpromisoak edo kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea.

Horrela, SPKLren 192. artikulua lehenengo apartatuan aurreikusten denez, baldintza-agiriek edo deskripzio-agiriak zigorrak aurreikusi ahal izango dituzte, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala betetzen ez denerako, edo SPKLren 76. artikulua 2. apartatuaren eta SPKLren 202. artikulua 1. apartatuaren arabera kontratua gauzatzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez direnerako. Zentzu horretan, SPKLren 192.1 artikulua adierazten du zigor horiek proportzionalak izan beharko dutela ez-betetzearen larritasunarekiko, eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo direla izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoak, BEZik gabe, ezta guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino handiagoak ere. Aurreikuspen horri dagokionez, SPKLren 192. artikulua horren bigarren atalak aurreikusten duenez, kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioen betearazpena partzialki bete ez badu, Administrazio kontratatzaileak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiaraztea edo administrazio-klausula zehatzen agirian edo deskribapen-agirian kasu horietarako zehatzen diren zigorrak ezartzea aukeratu ahal izango du.

Araubide horretatik abiatuta, esan daiteke kontratazio publikoaren eremuko zigorrak hertsatzeko isunak direla, ez dira zehapenak, eta kontratu-izaera dute (Gaztela eta



Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren maiatzaren 26ko 290/2006 epaia – ECLI: ES: TSJCL: 2006:2790). Horrela, bada, betebeharra erregulartasunez betetzen dela ziurtatzeko presio-bidea dira, artikuluaen zigor-klausula gisa. 1.152 CC. Aurreikuspen horren ildotik, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2020ko urriaren 14ko 839/2020 Epaia, erre. 151/2017 (ECLI: ES: TSJCV: 2020:6630), kontratazio publikoaren eremuko zigorren izaera juridikoari dagokionez, honako hau adierazten zuen Zuzenbideko Zazpigarren Oinarrian: *“En este momento vamos a analizar la naturaleza jurídica de las “penalidades” en el ámbito de la contratación, hemos señalado en el fundamento de derecho quinto que no se trata de “una sanción” ni es aplicable el procedimiento administrativo, todo ello sin perjuicio de la obligación de dar audiencia previa antes de acordar las penalidades...”*. Era berean, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2005eko otsailaren 9ko 361/2005 Epaia, 1045/2002 (ECLI: ES: TSJCV: 2005:741), honako hau adierazten zuen Zuzenbideko Bigarren Oinarrian: *“La jurisprudencia tiene declarado que cuando la Administración impone al contratista las expresadas penalidades no ejercita su potestad sancionadora, sino que su imposición se efectúa en el contexto de la contratación administrativa, haciendo aplicación de cláusulas contractuales aceptadas por las partes, habida cuenta que las cláusulas penales establecidas en los contratos administrativos, como ocurre en el Derecho Civil, se rigen por lo acordado entre las partes, sin que la posición privilegiada que ocupa la Administración en la contratación administrativa altere o desnaturalice las relaciones jurídicas surgidas de los pactos suscritos por los contratantes.”*

Bestalde, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2016ko maiatzaren 18ko Epaia, 476/2016 zenbakikoa, rec. 675/2013 (ECLI: ES: TSJCV: 2016:3642), Zuzenbideko Laugarren Oinarrian honako hau azpimarratzen du: *“Por tanto, en cuanto a la naturaleza jurídica del acto que analizamos, la primera conclusión que se obtiene es que aún cuando el propio Pliego denomine infracción y procedimiento sancionador, no estamos ante un procedimiento de esta naturaleza sino ante cláusulas penales contractuales...”*.

Beraz, aztertzen ari garen egintzaren izaera juridikoari dagokionez, lehenengo ondorioa da Pleguak berak arau-haustea eta zehapen-prozedura deitzen baditu ere, ez gaudela horrelako prozedura baten aurrean, kontratu-klausula penalen aurrean baizik...

Zigorak ezartzea, beraz, kontratistari hertsatzeko edo presio egiteko bitarteko gisa erabiltzen da administrazio-kontratazioan, eta bitarteko hori aplikatzen da kontratuan ezarritako betebeharrak aurrez ezarritako epearen barruan erregulartasunez betetzen direla ziurtatzeko, eta, horrela, obra aurreikusitako epean amaitzea bilatzen da. Beraz, behin eta berriz ulertu da zigor horiek ezar daitezkeela kontratistak kontratua gauzatzean berandutzen denean, baina ez obra amaitu ondoren. Izan ere, haren helburua da kontratua behar bezala betetzea eta kontratuko balizko ez-betetzeak zuzentzea eta jokabideak ez zigortzea, zigor horiek ez baitira hertsiki zehatzaileak, eta, beraz, helburu hori galduko lukete.



Ikus daiteke, beraz, Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiaren ustez **kontratazio publikoaren arloko zigorrek ez dutela administrazio-zehapen izaera**, baizik eta legez aurreikusitako formula bat dela kontratista behartzeko administrazio-kontratuan bere gain hartutako betebeharrak garaiz betetzera. Hori ezartzeko prozedurari dagokionez, legean ez da zehazten ezarpen-prozedura, eta, beraz, lizitazioa arautzen duten administrazio-klausula zehatzen agiriak ezarri behar du prozedura sumario bat, alegazio-epe labur batekin. Horretarako, kontratuaren arduradunak proposatuta hasiko da, eta kontratazio-organoak hartuko du ezarpen-erabakia (SPKL, 194.2 art.).

3.- Zehapenaren zenbatekoa

Kasu honetan, pleguak hau zehazten du: *“Giza baliabide edo baliabide materialak bideratzeko konpromisoak ez betetzeagatik: Ez dagokio, funtsezko kontratu-betebeharraren izaera duenez hau ez betetzeak kontratua bertan behera uztea suposatuko luke.”*. Horrek ondorio gogorak izango lituzke kontratuaren egikaritzean eta ulertu behar da enpresa kontratistak zuzendu daitekeen akatsarekin egikaritu duela kontratua, hortaz, kontratuaren prezioaren -BEZa sartu gabe- ehuneko 2ko zehapena jarri beharko litzaioke enpresari. Kontratuaren prezioa 538.578,92 eurokoa denez, **10.771,58 eurokoa izango litzateke aplikatu beharreko zehapena**.

Egia da kontratua ez betetzeak ezin duela kontratua aldeztu aurretik suntsiaraztea eragin; aitzitik, kontratua ez betetzea larria, kualifikatua eta funtsezkoa izan behar da, suntsiarazpena baita egoera horretatik erator daitekeen ondorio larriena. Auzitegi Gorenak 2001eko abenduaren 14ko epaian adierazi duenez, kontratua ez betetzearen ondoriozko suntsiarazpena mugatu egin behar da bere betebeharrak betetzeko borondate errebeldea agerian geratzen den kasuetara.

Kontsulta-organoen doktrinak, ikus adibide gisa, Estatuko Kontseiluaren ekainaren 18ko 500/2015 Irizpenak, Administrazioaren suntsiarazpen-ahalari buruzkoan, adierazten du suntsiarazteko ahalmena berez dela hain ondorio larria, non behartzen baitu ez-betetze larrietan soilik aplikagarritzat jotzera; izan ere, nabarmen neurrigabea eta bidegabea izango litzateke edozein ez-betetzek, oraindik gutxienekoa bada ere, ebazpen hori ekartzea, aukera hori Administrazioak nahitaez erabili behar baitu, behar bezala.

Kontratua suntsiarazteko behar besteko ez-betetze bat dagoela hautemateko, erabakigarria izan behar du kontratuaren prestazio nagusiari edo prestazio osagarriari eragitea, baina hain modu larrian, kontratua gauzatzea arriskuan jar dezaten edo baldintza-agirietan horrela definitutako gauzatze-baldintza berezietan, eta prestazioak erabat edo funtsean ez betetzearen bidez kanporatzea.

Jurisprudentzia errepikatuaren arabera, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1989ko martxoaren 20ko epaia edo Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren 2018ko otsailaren 13ko epaia, obra-kontratua emaitza-kontratua izan ohi da. Hori dela eta, bai Legeak bai Erregelamenduak, kontratu honen exekuzioa garatzean, aipatutako aginduak



azpimarratzen dituzte, kontratistak ondoz ondoko exekuziorako ezarritako epe partzialak betetzeko duen betebeharra azpimarratzeko, bai eta guztiz gauzatzeko orokorra edo amaierakoa ere. Item gehiago, kontratista berandutze-egoeran eratu ahal izateko, ez da beharrezkoa Administrazioak aldeztu aurretik interpelazioa edo agindeia egitea; are gehiago, kontratistak obraren garapenean izan duen jokaeratik ondorioztatutako azken epea betetzen ez dela uste izateak aukera ematen dio Administrazioari kontratua suntsiarazteko.

Kontratua suntsiarazteko orduan, kontuan hartu behar da 110.c) SPKLk ezartzen duenez, behin betiko bermeak erantzun zehatza ematen dio kontratuan jasotako prestazioak behar bezala gauzatzeari, kontratistak kontratazio-organoak eskaintako hobekuntzak barne, kontratista bere betebeharrak (prozedurak) betetzen berandutzeagatik Administrazioari sortutako gastuei. Beraz, kontratazio-prozedurak behin betiko bermea ez eskatzeko gaitzen ez badu, kontratua suntsiaraztean berme hori konfiskatu egin behar da, eta, era berean, prozedura hasi beharko da kontratista kontratatzeke debekuetan gera dadin.

VI.- ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA

Honi buruz, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 82 artikuluan hau zehazten du:

Artículo 82. Trámite de audiencia.

1. Instruidos los procedimientos, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de resolución, se pondrán de manifiesto a los interesados o, en su caso, a sus representantes, para lo que se tendrán en cuenta las limitaciones previstas en su caso en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre.

La audiencia a los interesados será anterior a la solicitud del informe del órgano competente para el asesoramiento jurídico o a la solicitud del Dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma, en el caso que éstos formaran parte del procedimiento.

2. Los interesados, en un plazo no inferior a diez días ni superior a quince, podrán alegar y presentar los documentos y justificaciones que estimen pertinentes.

3. Si antes del vencimiento del plazo los interesados manifiestan su decisión de no efectuar alegaciones ni aportar nuevos documentos o justificaciones, se tendrá por realizado el trámite.

4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y



pruebas que las aducidas por el interesado.

5. En los procedimientos de responsabilidad patrimonial a los que se refiere el artículo 32.9 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, será necesario en todo caso dar audiencia al contratista, notificándole cuantas actuaciones se realicen en el procedimiento, al efecto de que se persone en el mismo, exponga lo que a su derecho convenga y proponga cuantos medios de prueba estime necesarios.

Era berean, entzunaldiaren izapideari buruz 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 82.4 artikuluan hau zehazten du:

4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado.

Kasu honetan, interesdunak egokitzat jotzen duen dokumentazioa aurkeztu dezake, dagokion errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, **10 egun balioduneko epean**. Epe hori igarota alegaziorik egongo ez balitz, proposamenarekin ados dagoela ulertuko litzateke. Era berean, emandako epe horretan espresuki adierazi dezake proposamenarekin ados dagoela.

VII.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.



Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 1.292.897,85 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (3.262.690 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako eta Udalaren aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10a arteko balio zenbatetsia duten kontratazioetan, alkate-lehendakariari kontratazio-organoko gisa ematen dizkion eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organuari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea, aurrekarietan adierazitakoaren arabera, GUREAK BERDEA, S.L.U. (B20502613) enpresari zehapenak aplikatzeko espedientea martxan jartzea, Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak eta hobekuntzak egiteko zerbitzu-kontratuan, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat erreserbatua (SPKL 4. xedapen gehigarria), enpresa kontratistak Udalaren onespina jaso gabe, langileak ordezkatu eta horien kualifikazioa behar bezala aldatzeagatik. Hori dela eta, azalpen-zatian adierazitakoarekin bat etorriz, aplikatu beharreko zehapena 10.771,58 eurokoa da.

BIGARRENA.- Horren guztiaren ondorioz, GUREAK BERDEA, S.L.U. (B20502613) enpresari **10 egun baliaduneko epea** ematea, dagokion jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, egoki deritzon dokumentuak eta justifikazioak alegatzeko



egokitzat jotzen badu. Epea amaitu baino lehen interesdunak adierazten badu ez dutela alegaziorik edo dokumentu edo justifikazio berririk aurkeztuko, izapidea gauzatzat joko da.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea enpresa kontratistari, kontratuaren arduradunari, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari.

3. TOLOSAKO PARKE, LORATEGI, BERDEGUNE ETA KALEKO ZUHAITZEN MANTENTZE ETA HOBEKUNTZA JASANGARRIKO LANAK EGITEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN ESLEIPENAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze eta hobekuntza jasangarriko zerbitzua, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizareratze-enpresentzat erreserbatua (SPKL 4. xedapen gehigarria).
Unitate sustatzailea	Hirigintza Saila
Espedientea	2024SABI0001

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko udal ingeniariak 2024ko urtarrilaren 30ean igorritako ML240004 txostenean, aipatutako xedea duen kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2024ko urtarrilaren 24an Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S17/2024 00048723-2024) argitaratu zen lizitazioaren aurretzako iragarkia.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), bere V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna beste batzuen artean.



Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen ditu: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean.

Laugarrena.- Halaber aipatutako txostenean, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan:

Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikizaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Unitate sustatzaileko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Preskripzio tekniko partikularren plegua.
- Administrazio baldintza partikularren plegua.
- Azterketa ekonomikoa.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio-txostena

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.



Bestalde, zerbitzu kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 2.411.767,66 eurokoa da**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak 101.1.a) artikuluan xedaturikoa aintzat hartuta.

PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN						VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	4 años sin IVA	4 años con IVA	modificaciones
548.129,01	663.236,11	1.096.258,03	1.326.472,21	2.192.516,06	2.652.944,43	219.251,61
						2.411.767,66

Se ha aplicado un incremento anual del 3% para el cálculo de todas las magnitudes del contrato, pero, dado que no existe la posibilidad de revisar anualmente los precios, se ha calculado el precio para cada uno de esos 4 años y se ha realizado el promedio de los mismos. Sobre este precio promedio será sobre el que los licitadores tengan que realizar sus ofertas a la baja. Estos precios, una vez aplicada la baja ofrecida por los licitadores, permanecerán invariables durante toda la duración del contrato.

Aurrekontua (BEZa kanpo)	BEZ aplikagarria	Oinarrizko lizitazio aurrekontua (BEZa barne)
1.096.258,03 euro	10%	1.326.472,21 euro
<u>Aurrekontuaren partidak:</u>		
- Lorazaintza orokorrean: 0700.227.07.171.00: 1.300.606,00 € (98,05%)		Eskudirutan eta beste ondasun batzuetan ordaintzea: Ez
- Konposta: 1300.226.99.162.30: 15.519,72 € (1,17%)		
- Udaletxeko landareak: 0300.211.01.920.30: 10.346,48 € (0,78%)		
Baterako finantzaketa: Ez	Tolosako Udala: % 100	Beste erakunde batzuk: % 0
<u>Aurrekontua zehazteko sistema:</u> Oroharreko prezioan, lizitazioa arautzen duten dokumentazioaren zati banaezina den azterketa ekonomikoan agertzen diren taulen arabera.		

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da loteetan banaketa aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauek dira loteetan banaketa egin ez izateko arrazoiak: Kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak, zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek loteetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, gardentasun eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19 artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke; kasu honetan, 22.



artikuluak xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (221.000 euro), araudi horretara dago lotuta; beraz, **erregulazio harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratzailearen profileen argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da**.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikuluak xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtsu berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen denez, **kontratazioari buruzko errekurtsu bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezin izango da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaillei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun baliioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, administrazio baldintza partikularren pleguaren I tituluaren IV Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL.k 86, 87, eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluen 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.

IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: *“Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditenteak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditenteak, behar bezala arrazoitua”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.



Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “*Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...*”.

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, administrazio baldintza partikularren pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da hura formalizatzen denetik, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **2.411.767,66** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN						modificaciones	VALOR ESTIMADO
1 años sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	4 años sin IVA	4 años con IVA		
548.129,01	663.236,11	1.096.258,03	1.326.472,21	2.192.516,06	2.652.944,43	219.251,61	2.411.767,66

Se ha aplicado un incremento anual del 3% para el cálculo de todas las magnitudes del contrato, pero, dado que no existe la posibilidad de revisar anualmente los precios, se ha calculado el precio para cada uno de esos 4 años y se ha realizado el promedio de los mismos. Sobre este precio promedio será sobre el que los licitadores tengan que realizar sus ofertas a la baja. Estos precios, una vez aplicada la baja ofrecida por los licitadores, permanecerán invariables durante toda la duración del contrato.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **1.326.472,21 euro**, horietatik, 1.096.258,03 euro printzipalari dagozkio eta 230.214,19 euro BEZari (%21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **1.326.472,21 euro**, horietatik, 1.096.258,03 euro printzipalari dagozkio eta 230.214,19 euro BEZari (%21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, udal aurrekontu-partida hauen kargura finantzatu dira:

- Lorazaintza orokorrean: 0700.227.07.171.00: 1.300.606,00 € (98,05%)
- Konposta: 1300.226.99.162.30: 15.519,72 € (1,17%)
- Udaletxeko landareak: 0300.211.01.920.30: 10.346,48 € (0,78%)

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

Kontratu erreserbatua: SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratu hau gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat erreserbatua da.



VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira eta zifra edo ehunekotan baloratu ez daitezkeen irizpideak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, sei hilabetetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen ez baitu.

VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organoren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak,



zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 2.411.767,66 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (3.262.690 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako eta Udalaren aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10a arteko balio zenbatetsia duten kontratazioetan, alkate-lehendakariari kontratazio-organo gisa ematen dizkion eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arazoengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat hartuta, aldeko lege-txostena eta fiskalizazio-txostenak ikusita, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA. - Onartzea Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentzea eta hobekuntza jasangarriko zerbitzuaren kontratazio espedientea eta lizitazioari hasiera



ematea. Kontratua gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat erreserbatua (SPKL 4. xedapen gehigarria) dago.

BIGARRENA.- Onartzea kontratu honen ezaugarriak:

Epea: Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da hura formalizatzen denetik, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **2.411.767,66** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN						modificaciones	VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	4 años sin IVA	4 años con IVA		
548.129,01	663.236,11	1.096.258,03	1.326.472,21	2.192.516,06	2.652.944,43	219.251,61	2.411.767,66

Se ha aplicado un incremento anual del 3% para el cálculo de todas las magnitudes del contrato, pero, dado que no existe la posibilidad de revisar anualmente los precios, se ha calculado el precio para cada uno de esos 4 años y se ha realizado el promedio de los mismos. Sobre este precio promedio será sobre el que los licitadores tengan que realizar sus ofertas a la baja. Estos precios, una vez aplicada la baja ofrecida por los licitadores, permanecerán invariables durante toda la duración del contrato.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **1.326.472,21 euro**, horietatik, 1.096.258,03 euro printzipalari dagozkio eta 230.214,19 euro BEZari (%21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **1.326.472,21 euro**, horietatik, 1.096.258,03 euro printzipalari dagozkio eta 230.214,19 euro BEZari (%21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, udal aurrekontu-partida hauen kargura finantzatzeko dira:

- Lorazaintza orokorrean: 0700.227.07.171.00: 1.300.606,00 € (98,05%)
- Konposta: 1300.226.99.162.30: 15.519,72 € (1,17%)
- Udaletxeko landareak: 0300.211.01.920.30: 10.346,48 € (0,78%)

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoetara aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

Kontratu erreserbatua: SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratu hau gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat erreserbatua da.

HIRUGARRENA.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren administrazio baldintza partikularren plegua, azterketa ekonomikoa eta preskripzio tekniko partikularren plegua.

LAUGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren gehigarrian, lizitatzailleek beren proposamenak 40



egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

BOSGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Sailari, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2024/130 DEKRETUA: 2023/69 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2024/130 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2024KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

69. zenbaki duena, 454.718,15 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Jarduneko Zinegotzi Delegatu honek



ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

69. zenbaki duena, 454.718,15 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2024/133 DEKRETUA: 2023/70 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2024/133 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2024KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

70. zenbaki duena, 299.284,61 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Jarduneko Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*



TOLOSAKO
UDALA

2024IGBA0005

70. zenbaki duena, 299.284,61 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordez, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 13:15ean.

ALKATEA

IDAZKARIA

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus
23

www.tolosa.eus



EKS | CSV: **ESKU6c5081a4-6a25-4ea5-8a76-a757e1dd47a0**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0005-2024-02-05 Gobernu batzarra akta/2024-02-05 Gobernu